

Bertsolaritza eskola ordutan Lautadako Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan

Bertsozale Elkarteko irakaslea, Oihane Pe-
rea, klasea ematera etorri dira bi astez be-
hin, Lautadako 4 ikastetxeetara.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin
eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide
batez hainbat bertso emanaldi burutu di-
tuzte, azkena Ekainaren 4ean egin zuten
denek batera Aguraingo Harresi aretoan.

GU ERE BERTSOLARI programa
"bertsolaritzaren curriculum" lanean
oinarritzen da eta lau eremu lantzen
ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZ-
KUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSO-
NAL ETA SOZIALAK**.

IKASTETXEAK

Agurain: Lope de Larrea
ikastola eta Lautada ikastola

Araia: Araia Eskola

Dulantzi: Dulantzi Eskola

GU ere bertsotan



Lautadan... txindurriak ere bertsotan!

ZALDUONDOKO bertso-eskola

HAUR/GAZTETXO: Udaletxean.
Larunbatetan, 16:30-17:30(2 talde)

AGURAINGO bertso-eskola

GAZTEAK: asteartetan 19:00etan
HELDUAK Ostiraletan, 18:00etatik 19:
:30etara hamabostean behin.

HAURRAK: ostiraletan, 18:15-19:15.
8-12 urte bitartekoak.

ASPARRENGO

bertso-eskola

HAURRAK: 2014-2015
ikasturtean ordute-
gia zehazteko.



**POTOAK
HANKALUZETAN**

4BE-ren eskutik: Bertso-irratzaioa

**ASTEARTERO betan
TXINDURRI IRATIAÑ 92.0fm**

Gabonetako bertso abentura BARRIAN

Azken urteotan ohikoa denez, Gabonetan bertso abentura egin genuen. Aurten Eulaten izan zen, Urbasako magalean. 23 haur eta inguruko begiralerik martxosoenak elkartu ginen neguko oporren azken txanpa bertsoaren epeletan pasatzeko asmoz. Haurrek elkarrekin primeran pasa genuen, jolastu, kantatu eta barre giteko tarterik ez zen falta izan.

Bertsoak, musika eta jolasak tartekatuz 3 egun polit eta atsegin pasatzeko aukera izan genuen.

Hurrengorako badakizue...

ANIMATU ETA ETORRI ZAITEZTE



Lautadako ikastetxeen topaketa Harresin Aretoan



Ekainaren 4ean Aguraingo Lope de Larrea ikastola eta Lautada ikastola, Dulantzi Eskola eta Anaiako eskolako 5. eta 6.mailako 200 ume elkartu ziren Aguraingo Harresi Aretoan. Ikasturtean zehar landutakoa jende aurrean ipini zuten. Gelaka ikuskizun bana prestatuta ekarri zuten, asmakizunak, antzerkia... Ondoren DBHko 50 gaztek bertso-saio batez gozatu zuten. Bertan Oier Arbina, Iker Pastor eta Irati Anda aritu ziren bertsoetan. "Bertsoa Bizi Gazte" egitasmoan bertsoaren landu dute tailer moduan martxoan zehar, hauek ere, Aguraingo udalaren laguntzari esker.

Lautadako bertso-eskolartekoa Maiatzean

Maiatzaren 10ean Lautadako gaztetxo eta gazteen topaketa izan zen Zaldondo Lazarraga jauregian. Aguraingo bertso-eskolako haurrek bat-batean zer den ondo baino hobeto erakutsi zieten hurbildu ziren guraso, senide eta lagunei. Nerbioak pasata merienda gozorako tartea izan zuten. Ondoren Zalduondoko bertso-eskolako gazteak aritu ziren bat-bateko lan exigenteagoekin.

Epailleek erabaki zuten Egoitz Iradier eta Markel Yoller sailkatzea finalerako.



Maiatzaren 31an izan zen Arabako bertso-eskolen festan ere protagonista izan ziren lautadako haur eta gazteak. Sarta kantatu zuten Aguraingo bertso-eskolako txikiek eta saio ederra eskaini zuten Egoitz Iradier zalduondorak eta Markel Yoller Illarduiako gazteak. Autobusez bertaratu ziren haur, guraso eta gazteek egun pasa polita izan zuten, bertso saio, kalejira, bazkari herrikoi eta bertso-eskolen arteko jolasak tarteko. Hurrengo urtean gehiago eta hobeto. Zorionak guztiei!



Bertsoak Lautadako bazter guztietan 2013-2014 ikasturtean

ZALDUONDO

- 2013/6/22 Bertso-bazkaria 11 opari.
- 2013/7/28 Zeledon jaia. Bertso-saioa
- 2014/1/18 Bertso-bazkaria
- 2014/3/8 Arabako Kuadrilla Artekoa.
- 2014/5/10 Arabako eskolarteko txapelketa.
- 2014/6/15 Jaiak. Bertso-erronda etxez etxe.

BARRUNDIA

- 2013/11/10 Larrea Bertso-bazkaria.
- 2014/2/15 Ozeta Kuadrilla Artekoa. Bertso-afaria

ASPARRENA

- 2013/7/5. Araia Bertso-bazkaria
- 2013/7/7. Araia Bertso-poteoa eta bazkaria
- 2013/7/20. Araia Txalaparta eguna.
- 2013/8/15. Araia Artzain eguna: bertsolariak
- 2013/11/16. Ilarduia. "Bertso-txotx"
- 2013/11/30. Araia. "Bertso-tabern"
- 2014/3/22. Ametzaga. Arabako Kuadrilla Artekoa. Bertso-bazkaria.

DONEMILIAGA:

- 2013/12/21 Narbaxa bertso-afaria. Andoni Egaña

AGURAIN

- 2013/12/14. Agurain. Bertso bazkaria
- 2013/9/22. Langarika. Bertso-pilota
- 2013/10/8. Agurain. Jaiak. Bertso-saioa
- 2013/10/13. Agurain. Jaiak. Bertso-poteoa
- 2013/11/22. Agurain. Bertxoko sariketako finala.
- 2014/2/21. Agurain. Arabako Kuadrilla Artekoa. Bertso-poteoa.
- 2014/4/5. Agurain. Arabako Kuadrilla Artekoaren festa
- 2014/4/19 Agurain. Bertsokleta. Bertso-poteoa
- 2014/6/4 Agurain. Bertsoa Bizi Gazte. saioa

Gure eskualdeko txoko gehienetara heldu da bertsolaritza ikasturte honetan, era askotako publikoarengana heldu da formatu ezberdinetako bertso saioak tarteko..

2012ko uztailetik gaur arte 26 emanaldi egon dira, lagun arteko saio, jaialdi, txapelketa eta sariketak.

Bizitza kulturean oso presente egon da bertsolaritza, udal, elkarte edo bertso-eskolaren eskutik.

ESKERRIK ASKO

GUZTIOI



LAUTADA ARABAKO BERTSO KUADRILLARTEKOAN

Zalduondoko Zeledonon seme-alabak eta Lautadako sorginetxe taldeak izan dira gure eskualdearen ordezkariak ARABAKO BERTSO KUADRILLARTEKOAN. Talde anitzak eta martxosoak betiko lez, eskualdeko bertso-eskolen erakusleho bikaina. Bertso sorta kolektiboak ere aurkeztu dituzte 4 taldek (the rotabators, Zalduondoko marisoko euskara taldea, Txor eta tan eta Aguraingo gazte asanpladak. Guztira 3 saio burutu dira Ozaeta, Zalduondo eta Agurainen. Oionen ere entzun dira lautadako hotsak bertako taldeak gonbidatuta. Hori gutxi balitz, Agurainen azken festa, etxean bertan, egun osoko egitaraua eta giro mundiala.



Lautadako bertso-eskola
(Agurain, Asparrena eta Zalduondo)
Arramel kalea z/g 01200 AGURAIN

Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com
www.bertsozale.com/araba